



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Miren Gaztañaga eta Eneko Sagardoy dira protagonistak Pascal Ramberten *Maitasunaren itxiera* antzezlanean, Arriaga Antzokiaren ekoizpen berrian

- Pascal Rambert autorearen zuzendaritzapean, Gaztañagak eta Sagardoyk pasioz eta gordintasunez eszenaratzen dute bikote baten haustura lazgarria.
- Arriaga Antzokiak euskaraz egin nahi izan du proiektu hau, jatorrizko bertsoan (*Clôture de l'amour*) zein gaztelaniazko egokitzapenean (*La clausura del amor*) arrakasta handia izan zuen obra oholtzaratuz.
- Antzezlana urriaren 16 eta 17an, 19:00etan, ikusi ahal izango da Donostiako Antzoki Zaharrean

Miren Gaztañagak eta Eneko Sagardoyk pasioz eta gordintasunez eszenaratzen dute bikote baten haustura lazgarria *Maitasunaren itxiera* antzezlanean. Arriaga Antzokiaren ekoizpenik berriena Arriaga Antzokian estreinatu zen apirilaren amaieran eta **Pascal Rambert** egile eta eszena-zuzendari frantziarraren *Clôture de l'amour* lanaren euskarazko egokitzapena da. Teatro Kamikaze taldearen *La clausura del amor* gaztelaniazko bertsoak ere arrakasta handia izan zuen. Oraingoan, Arriaga Antzokiak euskaraz ekoiztu eta sustatu nahi izan du antzezlana hau, eta, gainera, Pascal Rambert bera da zuzendaria. Arriaga Antzokian apirila amaieran estreinatua, urriaren 16 eta 17an, 19:00etan, ikusi ahal izango da Donostiako Antzoki Zaharrean

Maitasunaren itxiera lanean bikote baten elkarrizketa latza ikusiko dugu. Protagonisten bakarriketa-trukeak hiltzen ari den maitasunaren bortizkeria adierazten du. Beldurra eta askapena nahastuko dira bikotearen elkarrizketa lazgarrian, gizon baten eta emakume baten arteko borroka suntsitzaile eta upidagabea.

Intentsitatea, emozioa, pasioa, gordintasuna, mina... horiek dira *Maitasunaren itxiera* lanaren interpretazioa, alegia, Miren Gaztañagaren eta Eneko Sagardoyren interpretazioa ondoen azaltzen duten hitzetako batzuk. Hizkuntza da garrantzitsua, egoera batzuetan tortura fisikoa baino eraginkorragoa baita. Bi maitale aurrez aurre, hainbat urtez eraikitzaile eta suntsitzaile izan duten harremana betiko itxi nahian. Argudioak, kexak, gaitzespenak, mina, amorrua eta maitasuna gurutzatu egiten dira, pasioz eta errailetatik adierazten den hizkuntza zehatz, kirurgiko eta uholdezko baten bidez.

Pascal Rambert-en hitzak

«Batzuetan gauzak gertatzen dira, begiradaren mirari moduko bat, adibidez. Norbaitek zerbait ikusten du eta begirada horren jabe egiteko gogo handia sentitzen du, edo beste norbaitek haren kontu egitekoa. Barbara Lennie, Israel Elejalde, Miren

Gaztañaga eta Eneko Sagardoyren arteko begiradaren errelebo hau *La clausura del amor* Arriaga Antzokian antzeztuta ikusi zutenean gertatu zen, eta hementxe jarraitzen dut nik beraiekin, euskara zoragarrian eta kultura bikain honetan murgilduta, Miren eta Enekorekin ere, mirari bat balitz bezala».

SARRERAK

- 20 eta 15 euro
- Salgai www.donostiakultura.eus/sarrerak eta Victoria Eugenia Antzokiko eta Antzoki Zaharrekoantzokiko txarteldegietan

Maitasunaren itxiera

Pascal Rambert-ena

Testua, zuzendaritza, eszenografia, argiak eta jantziak: **Pascal Rambert**.
Itzulpena eta bertsioa: **Eneko Sagardoy, Danele Sarriugarte**.

Antzezleak: **Miren Gaztañaga, Eneko Sagardoy**.

Zuzendari laguntzaileak: **Lucia Astigarraga, Nagore Navarro**.

Kolaborazio berezia: **Bilboko Koral Elkarteko Haurren Korua**.

Arriaga Antzokiaren ekoizpena